

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2024ko martxoa

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak %19,5 gehitu dira 2024ko martxoan, izan ere, aurten Aste Santua hilabete horretan izan da

Eguneko batez besteko tarifa 92,68 eurokoa izan da 2024ko martxoan Euskal AEn, aurreko urteko martxoaren aldean %9,5eko igoera izan du

Eustaten datuen arabera, **2024ko martxoan** %16,5 gehitu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak eta %19,5 ostatu-gauak. Erregistratutako 300.688 sarrerek 575.846 gaudi eragin dituzte. Gogoan izan behar da 2024an Aste Santua martxoan izan dela, eta 2023an, berriz, apirilean izan zen.

Sarreraren %38,2 eta gaudiaren %39,3 atzerritarrak izan dira; sarreraren kasuan %28,9 igo dira eta gaudiaren kasuan %31,1. Estatuko sarreraren eta ostatu-gauen kopuruak, bestalde, urte artean %10,0 eta % 13,0 egin dute gora, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaudiak eta batez besteko egonaldia. Martxoa 2024

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia	
	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	2023/03
EUSKAL AE	300.668	16,5	575.846	19,5	1,92	1,87
Estatukoak	185.833	10,0	349.753	13,0	1,88	1,83
Atzerritarrak	114.835	28,9	226.093	31,1	1,97	1,94
Araba/Álava	41.645	16,1	86.206	23,3	2,07	1,95
Estatukoak	32.282	15,6	62.595	16,4	1,94	1,93
Atzerritarrak	9.363	18,1	23.611	46,3	2,52	2,03
Vitoria-Gasteiz	32.720	12,9	71.323	22,3	2,18	2,01
Bizkaia	126.330	11,5	240.001	13,3	1,90	1,87
Estatukoak	78.155	3,4	140.136	4,3	1,79	1,78
Atzerritarrak	48.175	27,6	99.865	28,7	2,07	2,05
Bilbao	85.866	3,1	165.261	7,7	1,92	1,84
Gipuzkoa	132.693	21,9	249.639	24,7	1,88	1,84
Estatukoak	75.396	15,2	147.022	21,1	1,95	1,85
Atzerritarrak	57.297	32,0	102.617	30,2	1,79	1,82
Donostia / San Sebastian	91.195	25,8	171.490	32,2	1,88	1,79

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Arabaren 41.645 sarrera eta 86.206 gaudi erregistratu dira, aurreko urteko martxoan baino %16,1 eta %23,3 gehiago. Bizkaian, sarrerak %11,5 gehitu dira eta gaudiak %13,3; 126.330 sarrera eta 240.001 ostatu-gau izan dira guztira. Gipuzkoan 132.693 sarrera erregistratu dira 2024ko martxoan, 2023ko martxoan baino %21,9 gehiago, eta 249.639 gaudi, aurreko urteko hilabete berean baino %24,7 gehiago.

Hiriburuen arabera, sarrerren kopurua %12,9 igo da Gasteizen, %3,1 Bilbon eta %25,8 Donostian. Era berean, aurreko urteko martxoaren aldean, gaualdien igoera %22,3koa izan da Gasteizen, %7,7koa Bilbon eta %32,2koa Donostian.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia, 2024ko martxoan, 1,92 egunekoa izan da, 2023ko hil berean lortutakoa baino handiagoa, orduan 1,87 egunekoa izan baitzen.

Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Martxoa 2024

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2024/03	p.p. *	2024/03	p.p. *	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	53,2	6,8	64,0	6,0	92,68	9,5	59,29	20,8
Araba/Álava	52,0	5,6	64,1	4,0	78,90	4,0	50,59	10,9
Vitoria-Gasteiz	54,4	5,7	69,2	4,1	68,53	3,0	47,40	9,4
Bizkaia	50,5	6,5	63,0	6,5	95,98	13,2	60,45	26,2
Bilbao	56,6	6,9	70,7	7,8	103,92	13,6	73,46	27,7
Gipuzkoa	56,6	7,2	65,0	6,0	94,02	7,3	61,11	18,2
Donostia / San Sebastian	61,9	8,5	70,6	8,5	105,53	5,0	74,54	19,4

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AE osoan, 2024ko martxoko betetze-maila %53,2koa izan da plazen arabera neurtuta, eta %64,0koa gelen arabera neurtuta. 2023ko martxoarekin alderatuta, igoerak 6,8 eta 6,0 ehuneko-puntuak izan dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADRren edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua (logela bikoitzari aplikatua, bainugela ostatu hutsarekin), 92,68 eurokoa izan da 2024ko martxoan Euskal AEn, hau da, %9,5eko igoera aurreko urteko martxoarekin alderatuta. ADRa 95,98 eurokoa izan da Bizkaian, 94,02 eurokoa Gipuzkoan eta 78,90 eurokoa Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 105,53 eurotan kokatu da Donostian, 103,92 eurotan Bilbon eta 68,53 eurotan Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak 59,29 eurokoak izan dira 2024ko martxoan, aurreko urteko hil berean baino %20,8 handiagoak.

2024ko Aste Santuaren balantzea

Aste Santu honetan kontabilizatutako sarrerren kopuruak igoera txiki bat izan du, %0,6koa, 51.747 guztira. 2024ko martxoan, Aste Santuko sarrerak hileko guztizkoaren %17,2 izan ziren. 2024. urtean, Aste Santua martxoaren 28tik 31ra bitartean egin zen, eta aurreko urtean, berriz, apirilaren 6tik 9ra bitartean.

Aste Santuan ostegunetik igandera (4 gau) zenbatutako gaualdiak 2023koak baino txikiagoak izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan. Izan ere, 2024ko Aste Santuan ikusitako 106.143 gaualdiek %1,8ko jaitsiera dakarte, aurreko urtearekin alderatuta.

Euskadi osoan, okupazio-maila %73,4koa izan da, plazen arabera neurtuta, eta %78,4koa logelen arabera. Ehuneko horiek ehuneko 2,9 puntuko jaitsiera adierazten dute plazen arabera neurtuz gero, eta 3,0 puntukoa logelen arabera neurtuz gero.

Plazen okupazio maila ehuneko 3,7 puntu igo da Araban, aurreko urteko Aste Santuaren aldean; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, ehuneko 2,3 eta 5,7 puntu jaitsi da, hurrenez hurren. Gelakako betetze-maila jaitsi egin da hiru lurraldeetan: ehuneko 0,3 puntu Araban, 0,8 Gipuzkoan eta 6,0 Bizkaian.

Atzerriar jatorriko sarrerak guztizkoaren %39,4 dira, eta gaualdiak, berriz, %36,0. 2023ko Aste Santuarekin alderatuta, presentzia handitu egin da, %11,9 eta %4,5, hurrenez hurren. Estatuko jatorriko turismoak aurreko urtekoak baino balio baxuagoak izan ditu, %5,7 murriztu baitira sarrerak eta %5,1 gaualdiak.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, ostatu-gauak eta okupazio-mailak, eremu geografikoaren eta jatorriaren arabera. Aste Santua (*). 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Betetze-mailak (%)			
					plazen arabera		gelaka	
	2024	2024/2023 (%)	2024	2024/2023 (%)	2024	p.p. *	2024	p.p. *
EUSKAL AE	51.747	0,6	106.143	-1,8	73,4	-2,9	78,4	-3,0
Estatukoak	31.355	-5,7	67.947	-5,1	-	-	-	-
Atzerriarrak	20.392	11,9	38.196	4,5	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	7.503	9,5	15.959	11,5	73,4	3,7	79,3	-0,3
Vitoria-Gasteiz	5.656	15,7	12.381	13,9	73,2	3,9	81,4	-0,2
BIZKAIA	20.937	-9,5	44.665	-9,7	69,8	-5,7	74,4	-6,0
Bilbao	13.485	-13,5	29.813	-11,8	77,8	-4,8	82,4	-3,4
GIPUZKOA	23.307	8,6	45.519	2,6	77,3	-2,3	82,4	-0,8
Donostia / San Sebastian	15.666	22,5	30.450	9,8	82,9	-1,5	88,0	0,0

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2024ko Apirilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Lurraldeka, Aste Santu honetako portaera ezberdina izan da, aurreko urtekoaren aldean. Araban %9,5 gehitu dira sarrerak eta Gipuzkoan %8,6; Bizkaian, berriz, %9,5 jaitsi dira. Antzera, gaualdiak %11,5 igo dira Araban eta %2,6 Gipuzkoan, baina Bizkaian %9,7 jaitsi dira.

Lurralde bakoitzeko hiriburuen kasuan, Vitoria-Gasteizek %15,7ko igoera izan du sarreretan eta %13,9koa gaualdietan. Aurreko urteko Aste Santuan baino %22,5 sarrera eta %9,8 gaualdi gehiago izan dira Donostian. Bilbon, azkenik, sarrerak %13,5 jaitsi dira eta gaualdiak %11,8.

Informazio-oharra

Hotelen ETHaren 2024ko martxoko erantzun-tasa **%91,3koa** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62